

danbolin

2023 apirila

248 zk.

**Inguruko plazarik
ederrena egiten ari zirela
sinetsita**

Irao berri
pottokak

675 965 116 iraopottoka@gmail.com

640 917 626
Goxuri

k
kutxabank
Portale Kalea 7, 20740 Zestoa
tel. 943 147 088

txoko taberna
erdikalea 3
tel. 943 147 196

OGI BERRI
tel. 943 536 314
Orduetgia:
Asteleheneetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00

oller
gi
943 147 657

AGUSTIN taberna-jatetxea
bar-restaurante
943 897 331

Zestoa
AUTOESKOLA
Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

MB merendero BELLOETXE

UZTAILA		ABUZTUA		IRAILA	
1	2	1	2	1	2
3	4	3	4	3	4
5	6	5	6	5	6
7	8	7	8	7	8
9	10	9	10	9	10
11	12	11	12	11	12
13	14	13	14	13	14
15	16	15	16	15	16
17	18	17	18	17	18
19	20	19	20	19	20
21	22	21	22	21	22
23	24	23	24	23	24
25	26	25	26	25	26
27	28	27	28	27	28
29	30	29	30	29	30
31					

UZTAILA ABUZTUA IRAILA
URRIA AZAROA ABENDUA

USTAPIDE
TABERNA
Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

AVA ASESORIA ARIN
ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAU
Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOIA
Tel./Fax: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com

IRAETA JATETXEA
Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067

CARAVAN PARK
GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK
telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net

Gestoria Zubia
M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOIA
Tel./FAX: 943 897 070

HARATEGIA LOPENE
tel. 943 147 848 - 607 186 006

Diranzub taberna

LAIAK ZESTOA
kutxi eta pentsuak
www.laiakdenda.com
Tfnoa: 943148134
laiak
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.

Aranburu
Landetxea eta jatetxea
943 148 005

TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna
943 052 761

fati taberna
ZESTOA
Kale Okerra 3
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l. Itzulpenak baino askoz gehiago!
Bakun
Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus

UROLA ITURGINTZA
665 49 07 73

KOIO TE
foru plaza, 4
tel. 943 147 095

Araneta
ERRETEGIA
626 869 231 / 943 148 092
erreserbak@aranetaerretegia.com

118.426

Bi alkandora jantzita dator udaberriko lehen *danbolin* hau: hargintza eta bertsojaritza. Eta, ari nai-zela, ari nai-zela, hor ikusten det Txirrita. Bi horietan jardundako artista. Plaza ere bada apirileko aldizkariaren gaia; harginak Zestoakoa ari direlako konpontzen, eta bertsoari plaza dutelako berezko habitata. *Txirrita* ere, behin behintzat, jardun zen plaza horretan bertan, bertsoan: *Pello Errota* eta biek *publikoaren esku-zarta erauntsiak* eragin zituzten 1898ko Euskal Festetan. Pontevedran jaiotako bi maisu hargin, anaiak, ari dira plazako zaharberritzea zuzentzen. Sentsibilitatez azaldu du beren lana Fernando Arzallusek. Txirritak ere izan zituen lankide galegoak, baina ez zituen begiko. Sorta gordin bat jarri zien: «Galizia'tik datoz onera argiñak/eingo'ituztelako pareta berdiñak...». Hasiera da hori, gero ez die haizeak bidalitako andaluzari baino kariño gehiago erakusten: «beso makalak eta agiñak zorrotzak/euskeraz ikasteko belarriak motzak».

Euskal Herriko bigarren txapelduna izan zen Txirrita. Baina aurrenekoak ere badu lotura gurekin: «Zestoako plazan egin zuen lehenengo saioa Basarrik, 17-18 urte zituela. Jaiegun batez Zestoara joan zen nonbait, kuadrillan. Eta Patxi Erauskin bertsoaria hantxe ari zen bertsoan, mitin batean, bakar-bakarrik. Basarrik ez bide zuen bertsoarako asmorik, baina lagunak *ia!* eta *ia!* hasi zitzaizkion zirika, eta konturatzeko goierritarrekin kantuan ari zen, gorputza dar-dar batean».

Basarriren estreinako plaza hartaz gehiago jakiteko hemerrotekan egin dut murgil, arrastoa topatu dudun arte: «ZESTUA. BATZOKI BERRIA. *Eñi ontako abertzaleak badute beren batzokia. Iriondo'taí Martin'ek bera bizi dan etxen eskeñi diote. Inguruko abertzalien artean aste-oroko saltxa Zeztuan antolatzen ziran euzkotar-jaialdiak ziran. Oñegatik ez gera batere aritu tximist-gurdia azpeitiañez beteta Zeztua'ra juaten ikusita*». 1931ko maiatzaren 31a zen, eta bete-beteko egitaraua izan zuten: *eñi-txistulari jatoñen* diana, meza, ezpata-dantzariak, *ikuññaren* onspena, oturuntza Alkorta-enean, hi-tzaldiak, pilota partida, *Keisheta* aizkoran eta Patxi Erauskin *olerkaria*. Seguru samar egun horixe izan zen Basarriren debutekoa; kronikalariak espontaneo gaxterik aipatu ez arren.

Gainontzean, zer esango dizuet?, niri zoragarri iruditzen zait plazako zaharberritzea. Gure mundualdiko pasarte askoren eszenatokia da hori. Hankagorritan hortik pasa ginen bataiara. Geroago bataiotan hor ibiltzen ginen, txerri-borrokan, uharri artean geratutako txanpon-txamarrak harrapazka biltzen. Hor ospatzen dugu bizitza festetan, eta hor agurtu hil zaigun hurkoa. Eta, egunen batean, geronen fotografia ere hor jarriko dute, harategiko kantoian.

Azken lerroak titularrak... Azalera google bidez kalkulatu dut, eta gero neurketa-zinta hartuta hor ibili naiz plazan bertan metro koadro bakoitzeko harriak banan bana zenbatzen. Egin dut biderketa. Goiko zifra horixe, alirizira, plazako uharri kopurua.



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEI ERANTZUKIZUNA

Argitarabazilea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR Etxea. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOAZ (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATSUCANI, NAIARA OLAIZOLA, ITSASO ZUBIRIA, JONE BERGARA ETA ITSASO WALIÑO

Kolaborabazile/abonabazile batdea: NAGORE GELLERIA, JON ARCANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA, JANIRE DIAZ, ETA MAIALEN KORTADI

Diseinua eta maketazioa: ENEKO ARISTI

Inprimabegia: GERTU (OÑACI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISBN: 1576-9429



EGUNEROKO Lanaren aitortza

Enbido ederra bota didak Jexux Mari! Sekula ez nuen pentsatuko sukaldaritza ikasten hasi nintzenean munduko sukaldari onenaren bisita izango nuenik nire jatetxean. Egia esan, erreserba egin bai, baina konfirmatu eta etorri ziren arte ez neukan oso garbi benetan ari ote ziren.

Haiek gure jatetxea ezagutzea izan zen harrigarriena; ez dakit norbaitek gomendatu zien edo... Bazekiten gure lorpenen berri: txuletarekin irabazitako sariak, erreboiloarena... BMW saria ere ezagutzen zuten, eta horrek ere ilusioa egin zigun. Plater guztiei argazkiak ateratzen zizkion Muñozek, eta galdera pila bat egiten zituen. Gure etxeko janariak horrenbesteko interesa pizteak poz handia eman zigun.

Ondorengo egunetan izan zen kazetarien deia eta abarra! Munduko sukaldari onenaren saria bi aldiz eskuratu duen batek hain kritika ona egiteak eragin zuzena izan du gugan, eta egunerokotasunean antzeman

egiten da. Bestalde, hori da egunero egiten dugun lanaren emaitza. Horrek orain arte egindakoa hain gaizki eginda ez dagoela adierazten du, nolabaiteko aitortza izan da.

Jantokia betea geneukan egun hartan, eta azkenak joan zirenean parrila ikustera sartu ziren.

Arraina nondik ekartzen genuen galdetu zigun sukaldariak. Goizean goiz arrain bila iparraldera joaten garela azaldu genion. Ikatzari buruz ere galdetu zigun. Egun hartan geuk egindako etxeko ikatza erabili genuen, eta gauza horiei garrantzi handia eman zion. Oso umil egon zen eta bere iritzia partekatu zuen gurekin. Nik usate asmatu genuela jaten ondo ematen eta guretzat lorpen handia izan da.

Beno ba, jarrai dezagun katea luzatzen. Jare Eizagirreri pasa nahiko nioke enbidoa. Argentinan dabil azken aldian. Zure ama malkoa begitik kendu ezinda dago zu noiz etorriko zain, zer diozu zuk? Hor ere parrila onak badira! Zer moduzko parajeak ikusten ari zara? Noiz arte zaudete han edo zein da zure asmoa?

enbidoa

joseba adriagola

pintada.

ERRELEBO BILA. Zestoa Futbol Taldeko zuzendaritza batzordeak gogorazi nahi du datorren denboraldirako batzorde berria osatzeko deialdiak irekita jarraitzen duela.

Dagoeneko apirilean sartuta gaude eta oraindik ez da datorren denboraldirako lan talde berririk finkatu.

Egungo batzordeko pertsona batzuk ondorengoei laguntzeko prest daudela nabarmendu nahi dugu.

Garrantzitsua da lan taldea berria ahal den azkarren osatu eta martxan jartzea datorren denboraldiari begira.

Beraz, pertsonaren bat interesatuta baldin badago gurekin kontaktuan jartzera animatzen dugu.

zestoa futbol taldeko zuzendaritza batzordea

ISPILUAREN AURREAN.

Martxoko Danbolinen irakurritakoak bultzatuta jarri naiz orri txuriaren aurrean. Arimaren eta Arrieten elkarrizketari buruz ari naiz. Aurrez, orain hilabete batzuk, uztailean, zutabe honetan bertan Maia Ossak argitaratu zuenari ere tira egin ez, bide batez.

Aspaldian asko ari gara entzuten/irakurtzen LGT-BIQ+ mugimenduari buruz. Interes handiz ari naiz jarraitzen. Batik bat, iruditzen zaidalako, letra horietako bakoitzaren atzean milaka istorio, bizipen, ezkutaturiko sentimendu, eta batez ere sofrimendu dagoela. Norberak bere bidea aurkitu eta onartu arte dagoen ondoeza, eta ingurukook eragindakoa.

Ikasteko ere egiten ari naiz hurbilketa hau. Izan ere, aitortu dezagun, niri behintzat (eta esango nuke nire belaunaldiko oi eta zer esanik ez aurrekoei) kosta egiten zaigu letra bakoitzaren atzean zer dagoen identifikatzea. Beraz, batetik, ikasketa dago. Baina bestetik, hausnarketa ere bai. Ispiluaren aurrean jarri eta nire buruari galdera bat egitea: zenbat sofriarazi dut nik? Ez, noski, propio; ez, noski, fede txarrez, baina sofrimendua eragin azken finean. Izan ere, gure gaztetxo garaian gai hauek ez zeuden hain azalean. Eta oso ohikoa zen, esaterako, futbolearen ari ginela hanka indartsu sartzen ez zuenari ozen oihera egitea “marikoia ematen dek” edo antzekoren bat. Eta lasai asko geratzen ginen. Ez genuen gaiztakeriaz egiten, agian hori bera da larriena: normalizatua zegoela jarrera hori. Zenbati egin ote diote min nire hitzek, ekintzek? Eta urteek aurrera eginda, nire heterosexualitatea arau izatea besteena baztertuz? Zorionez, uste dut, garaiak aldatu direla, ni (gure belaunaldiko gehienok) aldatu naizela. Baina tamalez gizarteak ez du aurrera egin behar bezain beste. Albisteak jarraitu besterik ez dago, oraindik ere jasaten dituzte antzeko astakeriak, edo okerragoak, erasoak. Beraz, ez dugu bidea osatu, asko falta da.

Azken finean, zer axola ote digu bizilagunak, lankideak, lagunak, herrikideak, seme-alabak... zein hautu egiten duen? Zer dauka kritikagarri? Zer jazartu behar da? Niri poza eragiten dit Arimari eta Arrieti irakurtzeak “orain naizena naiz ni”. Hori baino gauza ederragorik!

kepa iribar

ETA ZUK BA AL DAKIZU EUSKARAZ?

Zoritxarrez, urtebete luzean, osasun profesional askorekin egon behar izan dut, eta estres linguistikoa eguneroko ogia izan da. Marka da gero, bularrean tumorea eta ezin lasai ibili; langile bat parean izan orduko nire buruari beti galdera bera: honek ba ote daki euskaraz?

Eta nik ez nuen diskurtsorik egin nahi: euskaraz artatua izateko eskubidea daukadala, Osakidetzak bermatu beharko lu-

keela nire eskubidea, eta hau eta beste. Jakina daukagula euskaraz artatua izateko eskubidea, baina nik beste gauza bat izan

dut buruan urte honetan: ez naiz kilo bat sagar erostera etortzen Donostiara, gaixotasun larri bat daukat, eta askoz erosoago sentitzen naiz euskaraz hizketan, lasaiago, konfiantza handiagorekin, adierazkortasun handiagoa daukat euskaraz...

Euskarari eusteko ahalegina egin dudanean, bide horretatik jo dut: “Ni hobeto moldatzen naiz euskaraz”.

Emaizta onak lortu ditut, baina saiatuta. Esan nahi dut, langileari galdetzen badiozu euskaraz badakien, erantzuna beti ez da bai ala ez. Esango dizu: “Gaztelaniaz hobeto moldatzen naiz” edo “ulertu bai, baina ez dut hitz egiten...”.

Tinko eustearen ondorioz, euskaraz aritzea lortu nuen bi adibide kontatuko dizkizuet. Behin, kimioterapian, beste pazienteekin gaztelaniaz ari zen laguntzaileari euskaraz egin nion. Bera euskaraz hasi zen, baina minutu gutxi batzuk barru, barkamen eske, esan zidan ondoondo ez zela moldatzen euskaraz. Nik erantzun nion primeran ari zela eta segitzeko euskaraz; a, eta ni askoz erosoago nengoela euskaraz hizketan.

Bigarren adibidea bitxia da. Kontsultan sartu eta ezagutzen ez nuen medikuarekin euskaraz aritu nintzen hizketan. Gauza garrantzitsuak esateko orduan, ordea, esan zidan gaztelaniaz egingo zuela. Nik esan nion berak nahi zuen bezala egiteko, baina ikusita ulertzen zuela, nik euskaraz jarraituko nuela. Nik uste dut gaizki ulertu zuela esan niona, alegia, biok euskaraz egitea eskatu niola ulertu zuen, eta euskaraz egin zuen dena, eta nola gainera! Euskaraz oso ondo moldatu zen, eta gainera, komunikatzaile bikaina zen.

Pazienteok ez daukagu zertan horrela ibili, baina onartu behar dut garaipen txikiok ederki gozatzen ditudala.

1. Posdata: Pixka bat zirikatuz gero, harri azpitik ateratzen dira euskaraz erdipurdi dakitenak edo sikiera ulertzeko gai direnak.

2. Posdata: Jaurlaritza, Osakidetzan noiz artatuko gaituzte euskaraz guk eskatu gabe?



onintza irureta azkune

HARRIZKO ALFONBRIA MIRESGARRIA

PLAZAKO ZORUA
DESMUNTATZEN ARI
DIRENEAN ETA
ERREKARRIAK PILORA
BOTATZERAKOAN
EGITEN DUTEN
ZARTATEKO HOTS
HORI.
HARRIZTATERAKOAN,
HARGINAK SEGUNDO
LAURDEN BATEAN
EGITEN DUEN EKINTZA
ITXURAZ AUTOMATIKO
HORI, HAU DA, HARRI
EGOKIENA
AUKERATZEA KASU
BAKOITZEAN, DENA
ONDO TRABATUTA ETA
BERE MAILAN GERA
DADIN. ERREKARRIA
BEZALAKO GAUZA
IRREGULAR BAT
PARRILLA GEOMETRIKO
BATEN MENDEAN
JARTZEKO LAN HORI,
ZEINETAN NERBIOAK
ETA KOADRATURAK
OBEDIENTZIA ITSUA
ESKATZEN DUTEN...

Egunetan nahiz une labur batean lanei begira egonez gero, hargintzaren munduaz ezer ez jakin arren han begira egonez gero, obra handi eta noble baten aurrean gaudela ohartzen gara. Eta iraunaraztea merezi duela. Horrek bultzatu gaitu plaza hurbilagotik ezagutzera. Bidean, gure agiri zaharrez gain, Breogan Agulla hargin galiziarra aurkitu dugu (eta bere laguntzaileak); bokaziodun pertsona, bere lanbidea miresten duena eta harrien hizkuntza entzuten eta ulertzen dakiena. Baina plazaren kontu hau oso historia luzea da eta pixkanaka egingo dugu bidea.

KALEGURUTZETIK PLAZARA

Zestoako plaza ez da beti izan gaur egungo neurrikoa. Segurua da XVI. mendearen bukaerara arte edo beranduagora arte ez zela kalegurutze bat baino askoz gehiago izan: "En la crucijada de la calle de la Iglesia de la dicha Villa al



cantón de las casas de mi el dicho Esteban de Eztiola”, dio udal eskribauak 1553an; hau da, Elizkalea eta Zesareo Diaz kaleen arteko bidegurutzeara.

Pentsa daiteke, beraz, Koiote eta udaletxe arteko orubea, toril aurea, etxeak izango zirela, kalea libre utzita, jakina. Behe aldean, berriz, Iraeta etxe ingurua harresiz kanpo zegoen; 1666an eskuratu zuen kontzejuak lursail bat “plaza zabaldu eta itxura hobetzeko zezenketetarako eta bestelako jai eta funtzioetarako”. Handik 100 urte eskasera, udaletxea plaza aldera begira jarri zuten, balkoia atera zitzaion (1738), harrizko armarri ederra ere bai (1740 ingurua), eta torila eraiki zen (1767). Handik aurrera, gure plazak oraintxe bezalako neurriak izango zituen.

Nolako zorua zuen garai hartan? Agiriek ez dute deus esaten, ezta Errasti udal-eskribauak 1785ean Errege Akademiara bidali zuen txostenean ere, nahiz eta gorai patzen dituen gure kaleak “con calzadas curiosissimas y losas labradas a cordel por ambas ceras”. Labur mintzatzen dira orduko paper zaharrak.

'PLAZAREN HARRIZTATZE BERRIA'

1893a zen. Urtero bezala, udalak atera zuen lehiaketara zekorketak antolatu eta barrerak muntatzeko deialdia, eskatu zitzaion Gobernadoreari festak egiteko baimena, ospatu ziren festak, barrerak ateratakoan hasiko zen euria orduan ere, iritsi zen udazkena eta 1893ko urriaren lehenean hartu zuten erabakia zinegotziek: “Incontinenti, se tomó el acuerdo

de satisfacer desde luego las obras del nuevo empedramiento de la plaza de Arzona, llevadas a cabo recientemente, y proceder inmediatamente a las del también nuevo empedramiento de la plaza mayor de esta Villa y construcción del paso comprendido entre la alhóndiga y la casa llamada Illarra. Bistan denez, aurrena Arroagoiko plazako zorua egin zuten eta, dirudienez, zestoarroi gustatu nola geratu zen, eta gurean ere antzeko zerbait egitea erabaki zuten.

Lana kurioso egin zutela esan digu Breogan Agulla hargin galziarrak. Pontevedrako da jatorriz baina Orion bizi da duela hogeitun urte pasatxotik. Anaiarekin batera, Cantería Espiga enpresaren jabea da (EScultura, Piedra Galicia), eta harri mota guztiak hornitzen eta jartzen dituzte. Beraiek dabilta gure plaza zaharberritzen. “Lanean gabiltzan guztioi zirrara eragiteaz gain gustatu egiten zaigu, oso artisau-lana delako eta oso gurea delako. Desmuntatzen ari garenean, konturatzen gara zein ondo eginda zegoen; hainbat geruza ditu, eta horietan ikusten da aurrena zoru edo oinarri on bat egiten zutela, [harri] eusten diena; gero ikusten duzu nola estutzen zuten [amordazar, dio berak] errekarri bakoitza, nola hondarrarekin jartzen zuten eta trinkotzen zuten. Eta berriro ere horrela egiten dugu guk, berriro heltzen gara beraiek hain ondo gogortu zuten zoru horretara (...) eta horrela konturatzen gara nola iritsi den gaur arte: ondo eginda zegoelako iritsi ahal izan da”.

Agiriek diotenez, oinarria egiteko materiala eta gaineko harriei eusteko hondarra Zumaiatik ekarri zituzten, herri hartako Jose Leon Etxeberriari eta Jose Maria Mitxelenari erosita (hurrenez hurren, 29 gurdikada eta 40). Orain, gaineko harriak desmuntatzerakoan, garbi-garbi ikusten du Breoganek zer dagoen azpian: “Azpian harrizko zera konpaktu bat dago, adreilu apurrekin eta hondarrarekin nahastuta (...). Trinkotzen zuten materialak bilatu zituzten eta ondo zapaldu zituzten, gure azpian zoru oso gogorra egiteko”.

Alfonbra egiteko harri biribilak Zumaia eta Zarautz arteko itsasertzetik ekarri zituzten (“piedra menuda que recogió en



1. Plaza, 1920ko hamarkada hasieran.
2. Plaza pixkanaka handitzen joan zen XVIII. mendera arte.
3. Plaza harriztatua, aproposa sokatiran ondo heltzeko zoruari (Argazkia, Arzallus familia).

la orilla del mar entre Zumaya y Zarauz”). Sebastian Alkorta eta Migel Antia zumaiarrak arduratu ziren biltzeaz. Galtzada-harria, berriz - *adoquín mayor* deitzen diote agirietan - Migel Antia eta Manuel Aizpuru zumaiarrei erosi zitzairen. Ikusten denez, herri-arkitekturan bezala, garai hartako harriztatze-lan haiek egiteko ere, inguruan biltzen zen material nagusia. Zentzu horretan, hirigintza jasangarriaz hitz egin dezakegu: egitura sinpleak itxuraz, eta inguruko baliabidetara egokituak.

Duela 130 urte plazan ibili zen lantaldea dena herrikoa zen. Bi hargin (Jose Unanue eta Jose Maria Kerejeta) eta haiekin batera peoiak: Jose Zulaika (71 egun), Roman Elustondo (57 egun), Jose Antonio Urbietta (49), Joan Maria Zulaika (31), Jose Manuel Irureta (29), Ramon Aldalur (29), Patrizio Murua (19) eta Benito Zubimendi (9). Garraio lanetan, berriz, Anizeto Regil (15 egun), Frantzisko Aizpuru (12) eta Jose Manuel Odriozola ibili ziren. Azpimarratzekoa da langileak zestoarrak izatea. Lehen, gurea bezalako herri koskor batean baziren horrelako lan bati heltzeko eskarmentua zeukaten harginak. Gaur egun, Agullak dioen bezala, “harriztatzea hargintzaren ezagutzarekin, lehen nola egiten zuten jakinda, modurik onenean nola egin daitekeen jakinda, tira... Harginak baserriak eta egiteko, hori bai, badago zerbait baina lantegi serio bat duen enpresa bat... Garai batean, harriztatutako leku ugari zeuden edonon, Euskal Herrian asko, etxe barrutan ere bai, eta galdu egin den gauza bat da”.

Kontuak kontu, orduko zestoar haiek ilusio ikaragarriarekin egingo zuten lan hura bere herria edertzeko helburuz eta inguruko plazarik ederrena egiten ari zirela sinetsita. Eta obraren tamaina ikusteko hor daude datuak: 400 m2 galtzada-harri, 1.000 m2 inguru harri, 69 gurdikada hondar... 85 eguneko lana, 567 bat egun langile denen jarduera batuz gero.

130 URTE

Errekarriz edo itsasoko harri biribilarekin harriztatutako eremu asko galdu ditugu gure herrian. Urrutira joan gabe eta geure oroimen laburrera mugatuz, Zelaiakoa etxeak zeukana, kanpoko plazatxoan eta sarreran, Arroagoiko plazakoa (Zestoakoaren garai berekoa) eta abar. Gaur egun, San Joan ermitaren atariko *alfonbra* zoragarria geratzen zaigu - hondatzen ari dena eta ondo kontu egin beharko litzaiokeena - eta, jakina, herriko plaza. Jende franko dago herrian plazako harri hori begien aurrean ikusi nahi ez duena baina, behingoz, ondare-balioa nagusitu da irisgarritasunaren kontzeptu gaizki ulertuaren aurrean. Iaztik dabilta konponketa lanetan. Hasieran, zati txiki batzuk - toril aldea, Koiote eta eliz ataria... - berritu zituzten baina aurrean behetik goraino dena bukatzeko asmoa dute. Deigarria da prozesu osoaren artisautza-izaera, duela 130 urteko hargin zestoarren lana egiteko moduetatik gehiegi bereizten ez dena.



ETORKIZUNA

Breogán Agulla galiziarra eta bere lantaldea, etorkizuna dira. Pixkanaka galtzen doan lanbide tradizional hori, bere edertasuna, bere funtzionaltasuna, jasangarritasuna gaurko gizarte modernoarekin uztartu nahi dute.

Harriarekin elkarbizitzen ikasi dute, eta pasioz egiten dute bere lana.

Bi anaiak - Santiago eta Breogan - Pontevedrako Escola de Canteiros de Poio delakoan trebatu ziren; Espainiako gisa horretako eskola publiko bakarra da eta Europako bakarrenetakoa. Eskolaren helburua Galiziako lanbide zahar eta nobleenetakoa bat kontserbatzea eta sustatzea da, hain zuzen ere, harria lantzen irakastea: “Eskola horretan hargintzari buruzko ezagutzarik handiena lor dezakezu. 3 urte eginda hargin titulua ematen dizute eta 5 egindakoan hargin-maisu titulua. (...) Bertan dituzu eskultura, modelatua, zizelkatzea, hargintza... Bost urteak amaitzean, hargintzan edozer zizelkatzeko eta egiteko gaitasuna duzu”.

Ez dute familian aurrekari nabarmenik: “Birraitona hargina zen, baina gure gurasoak ez... Gustatzen zitzaigun, ezagutza hori hartzen joan ginen eta horretan pixka bat nabarmendu egiten ginen, nik uste. Hala, 3-4 metroko irudiak diren Madrilgo Almodena katedraleko eskulturak egitera joatea proposatu ziguten, zizelkatzera (eredua eskultore batek eginga zuen baina harrira pasatu behar ziren). Artean Escola de Canteiros-en prestakuntza guztiz amaitu gabe, lan haiekin baliozkotzea proposatu ziguten”. Bi urte eman zituzten irudi haiek egiten. “Han Euskal Herriko jendeak ezagutu gintuen, hemen hargintza ezagutzen duen jende gutxi zegoela esaten ziguten, etortzera gonbidatzen gintuzten eta honantz etorri ginen. Enpresa bitan banatuta daukagu: anaia tailerraz arduratzen da eta han hiru mutil daude, eta gero nik eramaten ditut obrak eta bost gaude obran. 20 urte baino gehiago daramatzagu hemen, Orion gaude, bertan dugu gure baserria, eta gure tailerra”.

Era guztietako lanak egiten dituzte: “Gipuzkoara etortzean, hargintza tradizionalen sartu ginen, eskultura pixka bat utzi egin genuen, baina gauza txikiak egin ditugu, hala nola armarrak, tximiniak, iturriren bat... Baserriak egiten ibiltzen gara, txaleten paretak harriz estaltzen...”. Donostian, esate

baterako, zaharberritze enpresa garrantzitsuenekin kolaboratzen omen dute, eta Bilbon ere lan egiten dute (beraiek kendu omen dute Moyua plazako Ogasunaren eraikineko armarri frankista). Zestoari dagokionez, beren lehen hartu-eman kanpandorrea izan zen. Tximistak jo eta zaharberritu behar izan zenekoa: “Arkitektoak ziurtasunez jakin nahi zuen nor izan zezakeen lan hori ondo egiteko gaitasuna, eta Teusa zaharberritze enpresari deitu zion, baina haiek zaharberritzaile gisa bai, baina hargintzan ez, eta gurekin kontatu zuten, kontratatu gintuen eta guk fabrikatu eta kokatu genituen harriak. Nik uste dut udalak hortik ezagutzen gaituela, kanpandorretik...”

Miresgarria da entzutea nola kontaktzen duen Breoganek, eta zein poztasunez, plazan egiten ari diren lana. Oinarri trinkoaren gainetik dauden 20 zentimetroetan ari dira: “[Lehengoe] zorua gainetik hareazko geruza bat botatzen zuten, eta hori bai, guk kendu egiten dugu tokia behar dugulako. Geruza horretan, hargin zaharrek harria finkatzen zuten, eta kantoika jartzen zuten, indar gehiago izan zezan, eta gero hondar berarekin juntatzen zuten; dena egiteko aukera ematen duen hondar xehea izaten da, karga desberdinak emateko edo lodiera desberdinak emateko, harriari eusteko ere bai harik eta harri-betegarriak nerbioen tartean eduki arte... Marrazkia osatzen duen egitura hori da aurren-aurrea egiten duguna, eta hor, harriak desberdinak direnez eta tamaina desberdina dutenez, nahiz eta kantoika egon, bada material kantitatearekin jokatu behar da”. “Gero, horrek erresistentzia izan dezan, marrazki bakoitza harri txikiagoz bete eta beste posizio batean jarri eta presiopean sartu, estutu, estutu eta estutu egiten zuten, dena presioan geratzeko. Gu gauza bera egiten ari gara, baina harea izan ordez erresistentzia handiko morteroa jartzen ari gara; orduan, demagun, plazaren erresistentzia biderkatu egiten dugula lehen zuenarekiko, gauza bera eginez: morteroak lerro horiei eusten laguntzen digu, eta marrazki horri, nerbio horiek linean eusten, eta lokarriak jartzen ditugu marrazkia nolakoa den kalkulatzeko, altuera eta lerroa eramateko soilik; eta leku batzuetan galduz joan den altuera berreskuratzeko”. Gustura ari omen dira lanean: “Guretzat plazer handia da horrelako lanetan jardutea; oso gureak dira, gustatzen zaizkigu, laguntzen digute... txispa horrekin jarraitzen, betidanik gustatu zaiguna, hau da, hargintza, gal ez dadin eragiten, eta motibatzen gaitu geure burua mantentzeko eta hor jarraitzeko lanak egotea, eta ez aldatu behar izatea gure zaletasuna ez den igeltserotzara. Eskerturik gaude jendea pozik egoteagatik eta gu horren parte izateagatik, eta horrek gurearekin jarraitzera animatzen gaitu, hori baita egitea gustatzen zaiguna, hargintza. Uste dut herriko jendea horretaz jabetzen dela, jendea gelditu egiten da, galdetu egiten dizu nola egiten dugun eta zergatik...”

Tira bada, etorkizun bikaina opa diogu gure plaza maiteenari.

Fernando arzallus

Maroko zestoarren helmuga turistiko

ADOS JARRI DIRA NONBAIT
HAINBAT HERRITAR AURTENGO
OPORRALDI LEKUA
AUKERATZERAKOAN. MAROKO
IZAN DA MODAKO HELMUGA
TURISTIKOA; UDABERRIKO
OPORRETAN HAINBAT ZESTOAR
IZAN DIRA BERTAN. HEMEN
AFRIKAKO HERRIALDE HONETAN
IZAN DIREN ZENBAITI LUZATU
DIZKIEGUN GALDERAK ETA EUREN
ERANTZUNAK.

ZERGATIK MAROKO?
NOR JOAN ZARETE?
ZENBAT EGUN ETA NON IBILI ZARETE?
ZER NABARMENDU ZENUKETE?



Gurasoek ezagutzen zuten aurretik eta asko gustatu izan zaie. Beti esan izan digute ze polita eta ederra den eta azkenean denok elkarrekin joan gara.

Etxeko bostok. **MAIDER OLAZABAL, OIER, AMAIUR, URAITZ ETA HAIZEA LETAMENDIA.** 10 egun. Essaouira, Marrakech, D'Ouzoud ur-jauziak, Xauen.

Bizimodu eta kultura oso ezberdina. Ramadama, Essaouira-ko portuko giroa, Marrakecheko gaua eta jendetza, euskaldunak garela antzematea... Gainera, aukera izan dugu bertako zenbait familien etxeetan egoteko.



Azken zazpi urtetan hiru aldiz egon gara herrialde honetan. Basamortuko bizipenak hain sakonak izan zirenez, aurten, errepikatzea erabaki dugu.

Hiru pertsonako taldetxoa: **ANA ZEBERIO, JOSE LUIS OLAZABAL "PALAZIYO" ETA MAILU AGIRREZABALA.**

Hamar egun. Marrakech, Merzougako basamortua, D'Ouzoud ur-jauziak. Onena, basamortuko eguzkia eta ilargia, hondarrezko mendiak, isiltasuna, egunsentiak eta ilunabarrak... Bertako biztanleen umiltasunezko harrera eta zaintza. Txarrena biztanle horiek duten bizi egoera xumea eta eskasia.



Entzuna gendun hemen bazela ipar Afrikan gailurra, Zapaldu nahian etorri ginan Toubkal gaineko elurra, Lau mila metro garai da eta hasera baten beldurra, izerditzea ziurra, ta basamortuko lurra, golpetik ez da xamurra, Nomada gisa hondar artean atera behar egurra, Oso ezberdina sentitu genun Maroko aldeko turra.

JULEN, HAIZEA, ANE TA INA lehenbiziko laukotea, **ZUNZU ANAIK** beti burrukan garesti dago bakea, **ALEX URANGA, EÑAUT LIZASO** filosofoei tartea, **ARANTZETA** alkatea, jartzen du borondatea, jo, ze nolako taldea, Azkenik **AMETS ETA ZIGARAN** hau ere ze bikotea, Horrela normala izatea bidaia paregabea.

Hamartxo egun pasa ditugu luzatuz aste santua, Aurrenengo bi mendian pasa lagun genula astua, Marrakech ere ikusi eta da kaosaren tenplua, ondoren basamortua, hiru egun pasatua, ura da estimatua, Hasi batetik eta bestera karreterari lotua, Aniztasunez betea degu gure egunen zakua.

Pobrezia da kale hauetan gauza oso nabarmena, Hiri ta plaza turismoakin aberasten dagoena, Herri xumean jarri nahi degu gure atentzio dena, aurreiritzirik txarrena, askon ahotan aurrena, gure lehenengo sena, Idea ona degu begiak pixkat irekiatzearena, Marokoarra da pertsona bat dena ematen duena.



Asko gustatzen zaigulako bidaiatzea eta aukera on bat izan dugulako Europatik irteteko. Etxeko laurok, **JULI AGIRRE, J. MANUEL, IORITZ ETA ELENE GOENAGA** Lau egun. Marrakech. Danetik, hizkuntza, erlijioa, janaria bizi modua... Euskaraz ere hitz egin digute bertako herritarrek.



Gertu zegoen leku bat eta eguraldi onarekin. Gainera Marokok aukera desberdin asko ematen ditu, mendiak, basamortua, Marrakech. Lagun talde bat. **XUBAN ALBIZU, MARTA MUGA, JOKIN URRUTIA ETA ANNE CAMPO.** 7 egun. Marrakech, Ouzoud-eko ur-jauziak, Ouarzazate eta Saharako basamortua. Ramadam garaia, kultura ezberdina, Marrakech-eko iskanbila, Atlasa eta basamortuko lasaitasuna.



Aste Santutan kanpora nahi genuelako joan eta merkeena Maroko zela ikusi ondoren, leku ona iruditu zitzaigulako leku desberdin bat ikusteko. Kuadrillako hiru, **OLAIA ASTIGARRAGA, MAIALEN ALBIZU ETA LIDIA PEÑA.** Bost egun egon gara. Marrakech, Casablanca, Fez. Bizitzeko modu desberdina, kaleetako kaosa. Karreretan arauak ez dira errespetatzen eta semaforoak alferrik daudela dirudi. Jendearn gertutasuna eta laguntzeko prestutasuna.



Oso urrun joan gabe kultura eta bizimodu oso desberdinak ikusteko aukera ikusten genuen. Etxeko laurok, **ALOÑA ITURZAETA, OIHAN, ANDER ETA ELIAS LIZARBURU.** Bost egun. Marrakech, Zagoratik gertu gelditzen den basamortua, Ouarzazate, Draa ibaiaren aranak, Marrakech. Kontraste handia bai kultural eta tradizioetan.



Nire lagunek bidaia antolatua zuten joatea erabaki nuenerako, beraz, hori izan zen nire arrazoia. 4 lagun, gasteiztar bat, bi mutrikuar eta ni, **MARIA URIA.** 6 egun. Fez, Merzouga-ko desertu, Marrakech. Lasaitasuna, paisaiaren edertasuna eta gizarteak bere orokortasunean dituen kontradikzioak.



Herralde eta kultura berri bat ezagutzeko gogoarekin geunden, oso urrutira joan gabe. Lau lagun: **JUNE LANDA, GADEA AZKUE, AINHOA BERMEJO ETA AMAIUR ARISTI.** 9 egun. Marrakech, Merzouga-ko basamortua, Ouarzazate, Dra, Dades eta Rosas bailarak eta Essaouira. Marrakecheko kale bizia, basamortuko lasaitasuna, paraje lehor zein berdeak, janaria, zumo naranja naturalen prezioa, ramadama bizitzeko modu ezberdinak, basamortuko nomaden bizitza, klase ezberdintasuna, turismoak duen pisua...

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

 **ELORZA**
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015



unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110

mairi
LUTERIA
ESTANKOA


LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tif: 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408


lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

karmele
943 147 832

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173


SN
ESTILISTAK
680 802 777

 **ZESTOA**
ZURETZAT

IGARTZA S HAUNDI

MAHAI
INGURUKO
KONTUAK ETA
KANTUAK



BASERRIAK ETA BERTSOAK PRESENTZIA HANDIA
IZAN DUTE ETA DUTE JOXE RAMON IRIONDOREN
EGUNEROKOAN. BERAZ, EZIN BESTELA IZAN,
BASERRIAN HARTU NAU KAFE BERO ETA
PLATERKADA PASTAREKIN, ETA ELKARRIZKETARI
BERTSO EDER BATEZ EMAN DIOGU AMAIERA. HORRA
HOR ELKARRIZKETATUAREN BI AFIZIO HANDI, ETA
TARTEAN, ASKOZ GEHIAGO.

JOXE RAMON IRIONDO NAIZ, AKULU EZIZENEZ
EZAGUTZEN NAUTENA. HEMENTXE JAIO NINTZEN,
HEMENTXE HAZI, LEHEN GAZTE SASOIKOA ETA
ORAIN NAGUSI, BAINA URTE LUZEZ NAHI NUKE
ORAINDIK BIZI.

Ikasketak

Arroerrekako Etxetxo baserrian egin genituen lehen ikasketak. Orduan, ordea, ez zen egunero eskolara joateko aukerarik izaten baserrietan. Aitari galdetu ohi genion etxean egitekorik bazen, eta, erantzun ezezkoa zen kasuetan, eskolara abiatzen ginen. 6 urtetik 12 urtera arteko ikasleak elkartzen ginen, denok talde berean. Eskolan asko ez baina doktrina ederki ikasi genuen, orduan oso beharrezkoa baitzen. Auzoko neska bat izan genuen maistra, gu baino urte gutxi batzuk zaharragoa.

Santa Eskeko pasadizoa

Bertsotarako zaletasuna txiki-txikitatik izan dut. Hamar urte inguru nituela, maistrak presatutako koplekin irten ginen eskean 7-8 lagunez osaturiko taldea. Gogoan dut 5 kopla prestatu zizkigula, eta etxez-etxe abesten genituen. Zenbait baserrian, ordea, maistraren kopla guztiak abestuta ere aterik irakitzen ez, eta bat-batean abesteari ekin nion.

Urte hartan diru asko bildu genuela dut gogoan, ongi gogoan ere; izan ere, zegokidan kantitatea etxekoei ekarri eta egun gutxira, aita zenak Auspoa saileko liburua oparitu zidan, bertsoz osaturikoa. Makina bat aldiz irakurri nuen, hura zen nire altxorra.



Arroagoian eskolan

12 urterekin Arroagora joaten ginen eskolara. Eskola hartan bazen Francoren argazki bat, eta eguerdiko hamabietan denok ilaran hari begira jarri eta *Cara al Sol* abesten genuen.

Maisua oso frankista zen. Klaseetan ez zen euskaraz hitz egiterik izaten, horretan harrapatuz gero, zigortu egiten gintuen, baita perra txiki bateko multa jarri ere; eta, ondoren, etxekoei jakinarazi behar, orduan izaten genituen komeriak.

Santanetako saioa

Santanetan urtero etortzen ziren Kaxiano, Uzta-pide eta Lazkao Txiki Arroagora. Orduko apaiz Don Juan txikia arduratzen zen hura lotzeaz, eta gogoan dut 14 urte inguru nituela hark animatuta hiru edo lau bertso bota nituela bazkalosteko saioan. Kaxianok soinua jotzeaz gain bertsoetan ere gaitasun handia zuen, eta hartan aritu ginen laurok. Pena bakarra dut, argazkirik atera ez izana, makina bat aldiz oroitu naiz egun hartaz geroztik.

Don Juan Txikia

Don Juan txikia bigarren aita izan zen niretzat, izugarri estimatzen nuen, baita hark ni ere. Nire moduan bertsozalea zen oso. Oso hurbilekoa iruditzen zitzaidan, pertsona ona. Egungo ikuspegitik harrigarria badirudi ere, mezak emateaz gain enpresa batean egiten zuen lan. Inguruan zituen behartsuenei dirua ere ematen ziela dut gogoan. Zoritzarrez, Maria Luisa eta biok hark ezkontzea nahi izan genuen arren, ezkontza baino hilabete batzuk lehenago hil zen, enpresako istripu batean.

Erromeria, musika...

Bertsoa bakarrik ez, erromeria eta musika ere beti izan ditut gustuko. Adin buelta horretan gogoan bai dantzarako, baina inoiz aritu gabea, eta lotsa pixka bat ere bai. Hiru edo lau urte zaharra goa zen neska batek atera ninduen lehen aldiz plazara dantzara, egun hartan ez nuen pausorik behar bezala emango seguru asko, baina eseraerdien moduan gustuko lekuan aldaparik ez denez, intenzioa soberan eta inguruko festa guztietan aritu izan naiz dantzan ordudanik.

Beraz, udan auzoko festa guztietara hurbiltzen ginen, ez genuen erromeriarik huts egiten. Negan, berriz, gerora Jazzberri eraiki zuten lekuan zegoen tabernan, kantuan. Igande arratsaldeko bostetan hasi eta hamarrak ingurura arte aritzen ginen gelditu gabe dantzan. Batzuetan, zortetik bazen, hamarrak baino lehen, neska laguntzera.

Igandetako bertso eskola

Neska laguntzetik bueltan, Sansinenea tabernara joaten nintzen beti, iganderoko juntadizoa nuen hura, Andres Eizaguirre eta biok luze aritzen ginen bertsoetan. Tarteka, igande berezietan eta, Azpeitiko Bordatxo tabernara ere joaten ginen.



Bertan Lizasotarrak, Baxakarte, Jexux Arzallus eta beste hainbat elkartzen ginen.

Iganderoko saio horietako batean, bertsotan egitea beste arrazoirik gabe, auzokoren batek “txibatazioa” eman zuen eta, hurrengo egunean, Guardia Zibilak etxean agertu zitzaizkigun. Zumaiako kuartelera joan behar izan genuen aita zenak eta biok. Han, beldurrez entzundako azalpen baten ostean, aurrekaririk ez geneukanez momentuan libre utziko nindutela ulertarazi ziguten, “la próxima vez será muy distinto” erantsiz. Izugarritzko beldurra pasarazi ziguten, orduan ez zen bromarik izaten.

Ordiziako bertsolari txapelketa

21 urte nituela, Ordizian plazaratu gabeko bertsolarien txapelketa zela jakin genuen. Hara joan asmotan ginen Andres eta biok, baina Maria Luisak, elkarrekin hasi berri, ez zitzaioela ideia ona iruditzen aitortu zidan, plazaz plaza aritzen ziren bertsolari haien ibilera ez zitzaioela gehiegi gustatzen. Beraz, egoera ikusita, atzera egitea erabaki nuen.

Soldaduska

Emaztea ezagutu eta urtebetera soldaduskara joan behar izan nuen, San Telmoetan ezagutu nuen Maria Luisa Olaizola getariarra, eta hurrengo urteko San Anton egunean joan nintzen.

Ezagutzen nituen bost, sei laguneko taldea abiatu ginen Zaragozara, gustura elkarren babesean. Hara iris-tean, ordea, bakoitza kanpamentu batera bidali gintuzten. Bateko, Monkaio menditik zetorren haizea zela eta geneukan hotza; eta, besteko, lagunengandik aldenteak zekarren bakardade sentsazioa, laster joan zitzaigun hasierako poza. Aitortu behar dut, hala ere, lehen egunak gogorrak izanagatik, oroitzapen ona dudala, ongi egon nintzen.

Armero lanetan aritu nintzen soldaduskan. Iritsi eta 15 egunera, Zaragozara jaisteko baimena eman ziguten. Orduan, bisigua eta txuleta jateko ohitura genuen lagun arteko afari berezietan, eta Zaragozan gauza bera egitea zen gure nahia, huraxe gure bizipoza. Alabaina, joan ginen jatetxe batera, baita desio genuena eskatu ere, zerbitzariak, baina, txuletaren ordez arkume txuleta ekarri. Txuleta eskatu geniola azaldu nion, baina *chuletón* eskatu behar genuela erantzun zidan, ez *chuleta*. Ederki ikasi genuen, handik aurrera ez genuen berriz hankarik sartu.

Zaragozara joan etorriak

Gainera, etxetik hurbil egiteko zortea izan genuenez, asteburuetan etxera itzultzen nintzen. Oiartzungo lagun batek bazuen autoa, eta baita Soraluzeako beste batek ere. Soraluzearrak *SEAT 600* bat zuen. Autoa berak jarri bai, baina gidari lanak nik egin behar izaten nituen. Edatea asko gustatzen zitzaion, eta abiatu orduko lo hartzen zuela oroitzen dut; eta niri, logurak ni ere jakina, luze egiten zitzaizkidan joan etorriak.

Neskalagunari abestia

Maria Luisa se llama mi amor/ Maria Luisa Olaizola Lazkano/ una chica, chica, chica bum/ de Getaria y de Guipúzcoa, Guipúzcoa! / Maria Luisa el pañuelo saco/ cuando el tren hizo pichacacha/ y una lagrima rodo, rodo, rodo en su rostro angelical/ no llores más por mi/ le dije yo al partir/ que ya te escribiré/ en cuanto llegue allí/ y rápida serás/ en la contestación/ para que llegue bien/ en esta dirección/ 13 compañía, primer batallón/ todos en el campamento/ te dirán que es la mejor.

Lehen gutunean abesti hau bidali nion, berari sorturikoa. Ondoren, kazetaritzan aritzen zen lagun katalan bat egin nuen bertan, eta haren laguntzarekin baita abestiaren grabazioa ere.

Bertsolaritza

Aurrez esan bezala, bertso mundua beti gustatu izan zait eta oraindik ere bertsotarako zaletasun handia mantentzen dut. Inork bertsorik eskatu gabe, aldarte onean baldin banago, kotxean bakarrik noanean, edo baserriko lanak egiten ari naizenean, askotan aritzen naiz bertsoak sortzen neure kasa. Gazteagoa nintzenean ere, arrebek beti galdetzen zidaten bertsotan sumatu orduko, “hurbildu al da asteburua?”, umore hobea izango nuen larunbata gerturatu ahala, nonbait.

Baserria

Nire bizia oso lotua egon da beti baserriari. Esango nuke beti eduki dudala argi baserrian eta baserritik bizi nahi nuela. Animaliak ere izugarri gustatzen zaizkit, behar ditut; esaterako, denbora-pasarik gustukoenetako bat animaliei begira egotea dut. Horrez gain, jakin badakit baserriak ez duela etekin ekonomiko izugarririk ematen, edo beste zenbait alorretan diru gehiago lortuko nukeela hemen adina lan eginda, baina horren jakitun izanda ere, baserrian jarraitzea erabaki nuen.

Oraindik ere behiak eta ahuntzak baditugu etxean. Semeek ere esan izan didate hobeto biziko nintzatekeela horiek gabe, baina ezin dut. Animaliak eta natura ezinbestekoak ditut. Uste dut baserriarren lanak ez duela estimaziorik, jendea ez dela ohartzen zeinen beharrezkoa den.

aitor salegi

Bertso bat kantauko dut orain amaitzeko poz ta zoriona da hau niretzako gaia eduki duzu nik laburbiltzeko zer, nola bizi naizen zerbait galdetzeko hau da denontzako betiko antzeko nago laguntzeko ongi bizitzeko eskerrik asko, Aitor gaur zuretzako



Zestoako Udala



No estoy aceptando las cosas que no puedo cambiar,
estoy cambiando las cosas que no puedo aceptar.
(Angela Davis)

usteak erdia ustel



Horrela izango balitz, laguntza sozial gehien dauden lekuetan etorkin gehiago egongo lirateke. Eta hori ez da gertatzen. Prozesu migratzaileak lanari lotuta daude; lanari esker bizi duinago lortu nahi dute.

'Etorkinak
laguntza ofizialei esker
bizi dira'

Sentitu, pentsatu, **hausnartu**
eta, ondoren, ekin



Maderoterapia saioak

Onurak

*Azala tonifikatzen du
Zelulitisari aurre egiten dio
Zainen zirkulazioa eta
zirkulazio linfatikoa aktibatzen ditu*

tel.: 943 047 953
685 770 222



Uztapide Plaza b-4
mamenestetika@hotmail.com • www.zestoo.eus/mamen

*Aldez aurreko hitzordua
685 770 222 telefonoan*

Bazkideen artean zozketa egin da,
eta Juan Olaizola Olaizolari egokitu
zaio 100 eurotan baloratuta dagoen
maderoterapiako tratamendua.





2022AN PAUSO TXIKI HANDIAK

Pasa den urtean danborradak hainbat aldaketa txiki izan zituen; bi konpainia koloreka bereizi ziren, genero bereizketarik gabe. Alegia, danborren taldea urdina eta barrilen taldea gorria. Talde gorriarentzat txapel berriak egin ziren eta banderen taldean ere, Itxaropena dantza taldearen laguntzarekin, banderadun guztiak uniforme berdinarekin atera ziren.

HOBEKUNTZAREN OINARRIAK

Danborradako rolek bi ezaugarri nagusi betetzea lortu nahi da: haurrek paper aktiboa izatea herriko festa honetan eta rol hauek edozein haurrek betetzeko aukera izatea inongo genero bereizketarik gabe.

Kontuan izan behar da herriko haur guztiak dutela aukera danborradako rol guztietatik pasatzeko 5-12 urteko tartean. Bestalde, danborrada desfile militar baten parodia izanik, taldeen bateratzea eta antolakuntza ere beharrezkoak dira. Ordenarekin batera, kaosa ere beharrezkoa da, eta horregatik nahasmenaren edo herritar zibilen ordezkari diren pertsonaia berriak batuko zaizkio aurten danborradari: zirikatzaileak. Zestoarekin lotura duten pertsonaia dira: botonesak, zerbitzariak, inudeak, jauntxo aberatsak... Pertsonaia horiek aktiboak, zirikatzaileak eta dantzariak izango dira.

ALDAKETA ZEHATZAK:

Banderen taldea: Karlos Alkortak diseinatutako uniformea izango dute.

Zirikatzaileak: kantineren taldea ordezkatu du.

Sukaldari txikiak: arropari kolore apur bat sartuko zaio, zapi laukidunekin.

Zaldun txikiak: txikienen taldeko kantineren orde.

Gainontzeko partaide guztiak polaina beltzak eramango dituzte.

HERRIKO ERAGILEEKIN ELKARLANA

Gaur egun haurren danborrada antolatzeko ardura guraso boluntario taldeak badu ere, hausnarketa honetan herriko hainbat eragilerekin hartu emana izan du, hala nola: Amaieur Aristi aholkulari lanetan aritu da, soziologoa eta arlo profesionalean dantzan.eus-en duen arduragatik eta tradizio, eta errituen bilakaera eta sorkuntza prozesuetan duen ezagutza elkarbanatu du taldearekin. Karlos Alkorta diseinatzaile herritarra ere alboan izan dute banderen arropa diseinatzen. Ideia hauek oihaletara eramanez Cristina Sanchez jostun herritarrak. Horiez gain, herriko hainbat jostun boluntario (Petra Pozo, Mari Angeles eta Olga Goia, Lourdes Alberdi...) ere aritu dira arropak konpontzen eta neurriak egokitzen. Olga eta Mari Angeles Goya eta Kontxita Zunzunegi prozesu guztian bidelagun izan dira, haurren danborradako antolatzaile aitzindari modura.

Lerro hauen bidez, prozesuan alboan izan dituen guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie taldeak.

Danbor hotsa dakar haizeak

2023ko santakutzetan, azken hilabeteotan haurren danborradako antolatzaileek herritarrekin egindako hausnarketaren emaitza ikusiko da kalean.

Gure herrian tradizio bihurtu den festa hau zaindu eta mantendu ahal izateko, danborrada bere osotasunean aztertu du taldeak. Musika eta erritmoa edo kontra-erritmoa aztertu dira; kontra-erritmoa eramaten duten danbor joleek ezin dute aurretik joan, barrilek hain zuzen. Haur guztiak, genero bereizketarik gabe, danborrak eta barrilak jotzeko aukera izan zezaten konpainiak (koloreak) nahastu ziren, baina arrokekin genero bereizketa egiten zen; neskak gorritz eta mutilak urdinez. Hezkidetzaren aldetik ere danborradako zenbait rol berdintasun baloreekin ez datozelako bat ere ikusi da, kantineren kasua esaterako.





Egunero saiatzen naiz niretzako denbora hartzen. Astean bost aldiz behintzat hartzen dut.

**sorkunde
etxezarreta**
61 urte



Bai. Batzuetan, ordea, beste gauza batzuei garrantzi gehiago ematen diet nire buruari baino. Niretzat denbora hartzea oso garrantzitsua da, liburua bat irakurtzeko, adibidez.

**joana
iruretagoiena**
21 urte



Beti hartzen dut niretzako denbora, lehentasuna da niretzat. Kirola egiteko edo lasai egoteko...


yerai peña
25 urte



Bai. Oraingo egoeran gehiago gainera, denok behar dugu guretzako denbora.

**pello
gerenabarrena**
37 urte

ZURETZAT DENBORARIK HARTZEN AL DUZU?



(Erantzuleak guztira: 109)



ale

Laranjadi plazako harlauzak ez daude bere onenean



ale

Zubimusu kalean, Urola ibaiaren ondoan dagoen pasealekua berritu dute

APIRILA

25 asteartea

Haurren danborradaren inguruko hausnarketa aurkezpena.

18:00etan, Alonderon.

26 asteazkena

Ikasleku. 16:45-18:15, Gaztelekuan.

29 Larunbata

Erremonte jaialdia kiroldegian.

30 Igandea

IX. Gurutzeaga Txirrindulari Saria, 16:00etan.
* Urtemuga eguna eta bertsio gaua Gaztetxean.

maiatza

Santakutzak Zestoan

02 asteartea

19:00. Jaien hasiera kalejirarekin: Idiakaitz Txistulari taldea, Azpeitiko Banda eta Zestoako Musika Banda. 22:30. Helduen danborrada. Ondoren, Ustekabe txaranga.

03 asteazkena

10:30. Idiakaitz Txistulari taldearen diana. 18:00. Umeen danborrada.

Santakutzak Ibañarrietan

06 Larunbata

Auzo bazkaria Ekain sagardotegian

07 asteartea

12:00 meza ordezkoa Santo Kristo ermitan. 12:30 Zapo jokoa. 16:00 Iago magoaren emanaldia. 18:30 Herri kirolak: harriarekin: Jon Unanue Goenatxo III eta Xabier Aranburu Guzta. Aizkolariak: Julen Alberdi Txikia IV eta Mikel Larrañaga.

10 asteazkena

19:00etan baserrien etorkizuna, emakumeen papera eta hauen ikuspuntua baserri buruz, dokumentalaren emanaldia Portalek antolatuta.

12 ostirala

"Isiltasuna josi", poesia liburuaren aurkezpena, ilustrazio eta musikaz lagunduta. Poesia: Luisa Etxeberria. Ilustratzailea: Maragda Cuscuela. Musika: Nerea Mendizabal eta Agurtzane Auzmendi. Portalek antolatuta.

17 asteazkena

Pako Aristiren liburuaren aurkezpena (Foz de Lumbierreko gertakizunei buruzkoa) Portalen.

6a ZELEKUKO

maiatzeko

ESKALINTZA

4 eta 11: poltsa/motxila margoketa tailerra (3. zikloa)

5 eta 6: poltsa/motxila margoketa tailerra (DBH)

16: mahai-jolasak, gaztelekuan (2. ziklokoa). 16:45-17:45 edo 18:00-19:00. Aurrez izena eman behar da gaztelekuko 688 684 029 whatsapp zenbakian.

BARBANTXO

5 eta 19: Zestoan eta Aizarnan. 12 eta 26: Arroabeen

Iritsi da lorategi, balkoi eta terrazak koloreztatzeko garaia!



KIMUBAT
GARDEN

Fisioterapia Osteopatia

eskua Therapy Group

— 943 29 08 99 —

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 | Portale kalea 1, Behea B • 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740

MIZU
Hortz Klinika

mizuclicinacental@gmail.com
ZURINE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDOA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Tel.: 943 14 78 28

ZESTOAKO SAN TUAN FUNDATZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Taxi Zestoa

9 Eserleku

Eneko 603 394 729 | Joseba 670 431 906

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 | residenciagisasola.com

Botika - Laborategia ZURUTUZA

Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org

Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola

Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

LINTERNERIA SANTA CLARA

Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com

Maite dugun herria

ehbildu



ZESTOA

Abante!